

II. ERANSKINA BETETZEA

1. ESKATZAILEAREN DATUAK EDO DOAKO JUSTIZIAREN ONURADUN IZANGO DEN PERTSONAREN DATUAK.

PERTSONA FISIKOA

Lauki guztiak bete behar dira. **Jakinarazpenetarako helbidea**

Helbideari dagozkion laukiak bete behar dira (jakinarazpenetarako helbide bat adierazi behar da beti).

2. ESKATZAILEAREKIN BIZI DIREN SENIDEEN DATUAK

Eskatzailea ezkondua bada edo izatezko bikote gisa erregistratuta bada, ezkontidearen/izatezko bikotekidearen datuak ere bete behar dira, eta hura aurkako alderdia bada, adierazi egin behar da.

Eskatzailearekin batera erroldatuta dauden seme-alaba **adingabeen** datuak ere bete behar dira (izena, bi abizen eta adina). Prozeduran aurkako alderdia badira, adierazi egin behar da.

3. FAMILIA-UNITATEAREN DATU EKONOMIKOAK

Bete hiru eremuak:

- **Urteko diru-sarrera gordinak (edozein kontzepturengatik, salbuetsitako errentak barne).** Urteko **zenbateko** gordina adierazi behar da, eta adierazitako zenbatekoa hilekoa bada, urtean zenbat hilabete kobratzen diren zehaztu behar da.

Laukietan ez da honelako kontzepturik onartuko: "langabezian, aldi baterako lan-kontratua...".

- **Ohiko etxebizitza ez diren higiezinak.** Ohiko etxebizitza ez diren ondasun higiezinak baditu, adierazi higiezinaren balioa; bestela, bete laukia eta adierazi horrelako ondasunik ez duela.
- **Ondasun higigarriak/kontuko saldoak.** Ondasun higigarrien titularra bada, adierazi horien balioa; bestela, bete laukia eta adierazi horrelakorik ez duela.

Eskatzailea ezkondua bada edo izatezko bikote gisa erregistratuta bada, "Ezkontidearen edo erregistratutako izatezko bikotearen" hiru laukiak ere bete behar dira.

Doako Laguntza Juridikoa **eskatzen duena adingabea bada**, bete legezko ordezkariaren laukiak (izen-abizenak, NAN/AIZ eta ahaidetasuna). Kasu horretan, familia-unitatearen datu ekonomikoak hartuko dira kontuan (familia-unitatea: bikote ezkondua/izatezko bikotea eta erroldatutako seme-alaba adingabeak).

Beraz, datu ekonomikoak betetzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Gurasoak ezkondua edo izatezko bikote gisa erregistratuta badaude, adierazi bien diru-sarrerak.
- Ezkondua ez badaude, adierazi adingabea erroldatuta dagoen gurasoaren diru-sarrerak.
- Legez bananduta badaude: adingabearen zaintza duen gurasoaren diru-sarrerak. Zaintza partekatua bada, adierazi bien (aitaren eta amaren) diru-sarrerak.
- Adingabea Foru Aldundiaren tutoretzapean badako, adierazi eskaeran.

4. ESKATZEN DITUEN ZERBITZUAK

Markatu aukera.

5. KASU BEREZIAK

Markatu ezazu adierazitako kasuren bati badagokio.

6. PROZEDURA JUDIZIALAREN DATUAK

Zigor-arloko prozedura bat bada, honako alderdi hauek adierazi beharko dira: delitua/auzigaia, prozedura mota (aurretiazko eginbideak, presako eginbideak...) eta haren zenbakia/urtea, IZO, organo judiziala eta abokatuaren izena.

II. ERANSKINAREN arabera izapidetu behar diren gainerako kasuetan, prozedura bat abiarazi behar bada, uzia eta auzigaia zein organo judizialetan aurkeztuko den adieraziko da. Demandatua izanez gero, prozedurako datu guztiak adierazi beharko dira.

10. ESKAERA, LEKUA, DATA ETA SINADURA

Data inprimakia bete den eguna izango da, eta abokatuaren eta eskatzailearen sinadurak jasoko dira, edo hala badagokio, legez ordezkatzeko duen pertsonarena.

Inprimakia eskatzailearen sinadurarik gabe aurkezten bada, abokatuak idazki bat erantsi beharko du, sinadurarik ezaren arrazoiak azalduz.